Garapenerako Estrategia Positiboei buruzko IX. Jardunaldiak

Ondasun naturalen erabilera jasangarriaren aldeko ekintza feministak

Bilbon, 2014ko otsailaren 19an eta 20an

Bidebarrietako Udal Liburutegia
Bidebarrieta kalea, 4



Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO
BERDINTASUN, LANKIDETZA ETA HIRITARREN SAILA
ÁREA DE IGUALDAD, COOPERACIÓN Y CIUDADANÍA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Garapenerako Estrategia Positiboei buruzko IX. Jardunaldien ardatza uraren, lurraren eta ondasun naturalen alde antolatzen diren emakumeen zereginari buruzko hausnarketak eta ekintzak dira, emakumeen jabekuntza edo ahalduntzeari loturiko ikuspegi feminista batetik.

Jardunaldi horietan gaur egungo garapen-ereduaren ondorio sozialei eta ingurumenaren arlokoei buruz hausnartzeko eta aztertzeko espazioa eratuko dugu, ondorio horiek larriagoak dira-eta emakumeentzat. Ondasun naturalak izatea eta kontrolatzea garrantzitsua dela azpimarratuko dugu, hori izatea giza eskubide oinarrizko eta funtsezkoa baita giza garapen jasangarria lortuko badugu. Era berean, uraren erabileraren gestioan, tokiko nekazaritza eta nekazaritza-sistema zenbait garatzean, dibertsitateari eustean eta lurra zaintzean emakumeek duten funtsezko eginkizuna jarriko dugu agerian. Emakumeen erakunde batzuk garapen jasangarriaren eta bidezkoaren eredu berri baten alde egiten ari diren lana ere erakutsi nahi dugu, giza eskubideak errespetatuko dituen, ekonomiaren, izadiaren eta pertsonen arteko loturak berriro eraikiko dituen eta emakumeen osoko parte-hartzea bermatuko duen eredu berri baten alde, alegia, horrekin guztiarekin emakumeen ahalduntzeari (pertsonala eta taldekoa) lagunduz. Azkenik, nazioarteko lankidetzatik ondasun naturalen alde egiten ari diren lana aztertuko dugu jardunaldietan. Ikuspegi feministatik, lorpenak, erronkak, mehatxuak, oztopoak eta ikasitakoak identifikatuko ditugu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, 2014ko Jardunaldien helburuak hauek dira:

1. Ondasun naturalak izateko -ura eta lurra, esaterako- aukerarik ez izatearekin lotutako arazoek emakumeengan zer-nolako eragina duten hausnartzea.
2. Bizimoduaren jasangarritasunaren kontzeptuari balioa ematea, nagusi den eredua berraztertuz ikuspegi feminista eta ekologistatik.
3. Emakumeen eta emakumeen erakundeen borrokarako eta erresistentziarako esperientziak erakustea, eta horiek euren ahalduntze-prozesuetan zer-nolako eragina duten aztertzea.
4. Eremu horretako nazioarteko lankidetzaren erronkez eztabaidatzea.

Jasotzaileak

- Garapenerako lankidetzarako eremuan diharduten eragileak: GGKEak, erakunde publikoetako teknikariak.
- Emakumeen elkarteak eta elkarte feministak.
- Ondasun naturalen alde lan egiten duten elkarteak (nekazari eta indigenen alde).
- Proposatutako gaietan eta eztabaidetan interesa duten pertsonak.

Izena ematea: bidali mezua izena eta erakundea adierazita helbide elektroniko honetara: jornadasempoderamientobilbao@gmail.com

Izena ematerako azken eguna: otsailaren 17a, astelehena.

Haurtzaindegi zerbitzua jarriko da horretarako nahikoa eskari badago. Haurtzaindegi zerbitzua nahi dutenek, adierazi egin beharko dute izena ematean.

Otsailaren 19a, asteazkena

19:00 Aurkezpen instituzionala

Oihane Agirregoitia Martínez. Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza eta Herritarren Gaietarako zinegotzi ordezkaria.

Paul Ortega Etcheverry. Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziako zuzendaria.

Hasierako hitzaldia

Feminismoa eta ekologia mundu iraunkorrerako

Alicia Puleo García. Doktorea Filosofian Madrilgo Unibertsitate Complutense-an.

Otsailaren 20a, osteguna

9:30 Izena ematea

9:45 Testuinguruan jartzea

Mugak dituen planetan bizi daitezken bizitzak

Yayo Herrero López. Antropologoa, Gizarte Hezitzailea eta Nekazal Ingenieri Teknikoa.

10:30 Hegoaldeko esperientziak

Emakumeen Agenda Urdina: politika hidrikorako proposamenak, genero-ikuspegitik

Brenda Rodríguez Herrera. Genero- eta ingurumen-sarea, Mexiko.

El Salvadorreko udalerrietan ura eta saneamenduaren eskuragarritasuna. Emakumeen ahalduntzea ikuspuntu lokaletik

Pedrina Rivera. Suchitotoko alkatesa, El Salvador.

11:30 Kafea

12:00 Iparraldeko esperientziak

Emakume baserritarrak martxan: nola lortu nekazaritzako mundu feministagoak eta feminismo nekazariagoak?

Leticia Urretabizkaia. Ikertzailea eta giza alternatibetan komunikatzailea feminista ikuspuntutik.

Asoziazionismoa Bizkaiko nekazaritza-ustiategi familiarren indartze estrategia gisa. Emakumeen egoera.

Jone Gardoqui Arriortua. Landa XXI Landa Inguruko Emakume Elkartea, Enba Nekazal Sindikatua.

Eztabaida 14:00ak arte

15:45 Hegoaldeko esperientziak

Extraktibismoa eta bere eragina emakumeengan

Gloria Chicaiza. Ekintza Ekologikoa, Ekuador.

Feminismoaren eta herri indigenen ekarpenak lurraldearen eta gizarte-aldaketako prozesuen alde

Natalia Atz. Ceiba-ko koordinatzailea, Guatemala.

16:45 Mahai-ingurua

Nola ekiten dio Garapenerako Lankidetzak emakumeak ondasun naturalak izateko aukerari?

Isabel Álvarez, EHNE
Maria Viadero, Mugarik Gabe
Maritxu Arroyo, Bizilur
Natalia Atz, Ceiba (Guatemala)

Eztabaida

18:00 Klown-ondorioak, Oihulari Klown antzerki taldeko Virginia Imazen eskutik

18:30 Jardunaldien amaiera